

Ikusteko eta entzuteko historia

Negu Gorriak taldearen ibilbide osoa jasotzen du '1990-2001' DVDak, azken kontzertua barne

MIKEL LIZARRALDE

«Geurea da garaipena» aldarria-
rekin itxi zuen Negu Gorriak tal-
deak, 2001eko otsailean, 11
urteko ibilbidea. Enrique Rodri-
guez Galindo Guardia Zibileko
buruarekin izandako auzia ira-
bazi izana ospatzeko bi kontzer-
tu eskaini zituen taldeak, Baio-
nan eta Donostian, eta horrela
agur esan zuen. Taldea ofizialki
desegin eta bost urtera. 1996an
emandako hitza beteta.

Orain, Negu Gorriak-en ikus-
entzunezko historia osoa bildu
du Metak disketeak 1990-2001
DVDan. Besteak beste, bideo-klip-
ak, *making-off*-ak, zuzeneko
emanaldiak eta erreportaiak
jasotzen ditu. Horietako batzuk
VHS euskarriari argitaratuak
zeuden (Herrera de la Mancha-
ko espetxe aurrean eskaintako
lehenengo kontzertua, Tour
91+1, NGTB 94 informatiboa),
baina beste batzuk lehenengo
aldiz daude ikusgai (1995ean
Oiarztunen eginiko *Hitz egin*
kontzertua eta agurreko ema-
naldia). DVDarekin batera, CD
bat ere kaleratu dute, Donostia-
ko azken kontzertu hartan gra-
batutako 16 abestirekin.

Talde mugarrri baten historia

Nahiz eta taldeak 11 urtetan gra-
batutako ikus-entzunezko mate-
rialen bilduma izan, 1990-2001
DVDak Negu Gorriak-en historia
ere kontatzen du, zeharka bada
ere. Hasi Fermin eta Iñigo Mugu-
ruza anaiek eta Kaki Arkarazok,
artearen hirukote gisa, grabatuta-
ko lehen diskotik eta amaitu
azkeneko kontzertuarekin. Eta
bitartean, euskal musikaren his-
torian mugarrri den talde baten



NEGU GORRIAK, 1993an ateratako argazki batean. BERRIA

alderdi ugari erakusten ditu:
musikalak eta konpromisoari
lotutakoak batzuk, eta pertsona-
lagoak, egunerokoagoak, beste
batzuk.

Negu Gorriak-ek 1990eko
otsailean egin zuen lehenengo
agerpena, Muguruza anaiek
(Kortatu) eta Arkarazok (M-ak),
taldearen lehenengo diskoaren
grabazioa iragarri zutenean.
Garai hartakoak dira *Radio*
Rahim eta *Seinalea* kantuen
bideo-klipak, biak DVDan ikus-
gai. Halaber, horietako lehenen-
goa nola filmatu zuten ere doku-
mentatua dago.

Gerora eszenatokietan asko
nabarmendu bazen ere, Negu
Gorriak estudioko talde gisa
sortu zuten hiru musikariek. Ez
zuten kontzerturik emateko
asmorik. Eta lehenengo agerpe-
na egiteko ere leku bereziki

enblematikoa aukeratu zuten:
Herrera de la Manchako (Espa-
nia) espetxea. Urtero-urtero
euskal preso politikoan aldeko
marxa egiten zen garaian, tal-
deak milaka lagunuen aurrean
eta polizia inguratuta eskaini
zuen lehen kontzertua. Mikel
Kazalis izan zuten laguntzaile
baxuarekin, eta bateriaren lekua
erritmo kutxa batek bete zuen.
Lekuagatik, esan nahi zuenaga-
tik eta taldeagatik, kontzertu
historikoa izan zen.

Herrerako kontzertutik abia-
tuta, Negu Gorriak zuzenean
izan zenaren testigantza zabal-
a eskaintzen du DVDak. Mikel
Abrego eta Mikel Kazalis tal-
dekide bihurtuta, 1991ko apiril-
ean ekin zion taldeak bere lehe-
nengo birari, eta Euskal
Herrian nahiz atzerrian izan
zuten aukera Negu Gorriak-en

emanaldi bizi eta indartsuez
gozatzeko. DVDan kontzertu
horietako irudiak ikus daitezke,
eta baita eszenatoki kanpokoak
ere: Manu Chaorekin motorre-
an paseatzen, Habanan kon-
zertu batean kubatarren dan-
tza erritmoa eraman ezinik,
arropak garbitzen, Kazalisen
urtebetetzea ospatzen Bilboko
Casillan kontzertua hasi aurre-
tik...

Negu Gorriak-en historia kon-
promiso historia bat ere izan da.
Mikel Kazalis intsumisio izatea-
gatik epaitu behar zutenean tal-
deak kontzertua eman zuen
Donostiako auzitegiaren kanpo-
an, El Salvadorren FMLNren
kanpainen parte hartu zuen...
horren guztiaren isla dago iru-
dietan. Eta une batean edo bes-
tean taldearekin agertokia kon-
partitu zuten lagun ugari ere

BESTE TALDE HISTORIKO BAT

Hertzainak-en zuzeneko diskoa DVD formatuan argitaratu dute

Hertzainak taldeak 1991ko
urtarrilaren 18an eta 19an
Bergarako Txibisto aretoan
grabatutako diskoa DVD
formatuan kaleratu berri
dute: *Zuzenean 91.01.19*
(Oihuka). Taldeak disko
bikoitz batean jaso zituen
grabazioak urte berean bi
kontzertu haiek eta, orain,
orduan bideoan jasotako 13
abesti bildu dituzte DVDan.

Emanaldi haietan
taldearen garai guztietako
kantuak berreskuratu zituen
Hertzainak-ek: *Pakean utzi*
arte, *Sigarrillok amarillos*, *Hil*
ezazu aita, *Esaiok*, *Bi*
minutero, *Aitormena*, *564*,
Arraultz bat pinu batean...
Zuzenean 91.01.19.

Hertzainak-en azken aurreko
diskoa izan zen, hurrengo
urtean *Denboraren orratzak*
diskoa grabatu ondoren,
taldea desegin egin baitzen.

azaltzen dira: Xabier Montoia,
Tapia eta Leturia, Sorkun, Manu
Chao, Eneko Abrego...

Orain arte argitaratu gabeko-
en artean, 1995. urtean adieraz-
pen askatasunaren alde Oiar-
ztunen eginiko *Hitz egin*
jaialdiko irudiak eskaintzen ditu
DVDak, eta baita agurreko kon-
zertuarekin ere. Jon Maia ber-
tsolariak *Galindo auziaren* garai-
pena ospatzeko eginiko
bertsoekin hasi zena: *Gaur Pepe*
*Reiren izena / euskal preso gus-
tiena / euskal nortasunarena /*
*belodromoan presente eta / bizi-
rik dago den dena / Galindo joan*
zen / gu hemen gaude / Gurea da
garaipena.

MOZART TXAKURRA
filmaren estreinaldia euskaraz
(ikusle guztientzat)

ABENDUAK 3tik
aurrera ikusgai ondoko
zinema aretoetan:

- BILBO: MIKELDI MULTIZINEETAN
- DONOSTIA: WARNER LUSOMUNDO ZINEMATAN
- GASTEIZ: FLORIDA MULTIZINEETAN
- LEIOA: CINESA ARTEA ZINEMATAN

Ori hau leihatilan erakustean, sarrerak EURO BATEko deskontua izango du.
Sarrerak: Ikuslearen eguneko prezioan

bastero
KULTURGUNA

ANDOAINO UDALA

LOS PERJUICIOS DEL TABACO
HELDUENTZAKO ANTZERKIA
(GAZTELANIAZ)

ABENDUAK 9
21:30

Sarrera: 10 €

Bastero Kulturaguneko
Auditorioan

SARREREN SALMENTA

Laguntzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia

bastero

Errenteriako Udala
IRAGARKIA

Alkatetzaren 2003ko urtarrilaren 31ko Birziklitzeko produktuak:
Sukaldeko olioak, pintura eta disolbatzeko ontziak, pilak, bateriak, auto-olioak, aerosol (intsektizida, laka, etab.), fluoreszenteak, garbitzeko produktu kimikoak (amoniakoa, agoarrosa, eta abar), eskuko telefonoa...

Datorren astelehenean, hilak 5, Diputazio plazan (Iztietan) jarriko den furgonetan utzi ahal izango dituzu KOLABORATU INGURUMENAREKIN

berria
publizitatea:
publi@iragarri.net
© 943 30 40 30

Euskaldunok behar dugun **berria**